

Omendua

Errigora

24. KORRIKAn, Errigora omendu nahi dugu; Korrikak aitortza egin gura dio euskaratik, euskararentzat eta euskaraz lanean ari den ekimen herritarrari, egin duen eta egiten ari den lanarengatik, baita babesa adierazi eta aurrera jarraitzeko bultzada eragin ere.

Ekimen herritarra da Errigora, Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes ditu. Nafarroa hegoaldea du ardatz, eta euskara ofiziala ez den zonan eragiten du, bertako berezko elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararentzat eta euskaraz. Korrikak bezala, euskal herritar asko mobilizatzen ditu, eta lanean dihardu euskararen aldeko ekintzaileekin. Euskal Herri osoan da ezaguna, eta bat egiten du Korrikaren balioekin. Guztion arazo komunei bertatik bertara erantzuten saiatzen da, baita etorkizuneko erronkei erantzuna ematen ere, izan larrialdi linguistikoa, klimatikoa edo/eta nortasunaren ingurukoa.

Txikitasuna erdigunean jarri nahi dugu, gutako tanta bakoitzak blaitzen du-eta euskararen ibaia, gurea, hizkuntza minorizatua. Hizkuntzak batzen gaitu, Atharratzetik hasi eta Bilboraino, artean Nafarroako Erribera zeharkatuta; txoko horietan guztietan euskaraz gara, eta euskarak batzen gaitu. Komunitatean pentsatu eta sinetsi behar dugu, elkarlanean aritu. Helduen euskalduntzea dugu erronka eta helburu, eta alor horretan ere bidelagun dugu Errigora. Printzipioetan bat egiten dugu: euskararen sustapena, eta burujabetza.

24. KORRIKAre bitartez, aitortza egin nahi diogu orain arte Errigorak jorratutako bideari. Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremuan, euskalduntzean egin duen ahalegina aintzatzeko era da, baita etorkizunerako bultzada emateko hauspoa ere. Jarrai dezagun euskarari puzka.

Mezua

Euskara-herria naiz, bizitzeko era, izateko modua.

Suaren antzekoa naiz: beti bera, beti berri.

Ongi etorri nire etxera, gure etxera.

Iraganetik gaur egunera, ateak beti zabalik ditugun babesgunera.

Zu eta ni euskara gara. Bat gara.

Milioi bat euskaldun gara, eta gehiago izango gara.

Biziberritzen den komunitate aske eta irekia gara,

elkarrekin sortuko dugun etorkizuna.

Alderik alde zeharkatuko dugun Euskal Herria gara.

Eman hitza, eta eman pausoa, erdigunean jartzeko aniztasuna eta elkar zaintzea.

Eman pausoa, eta aktibatu, lehen lerroan nahi dugu helduen euskalduntzea.

Guztiok gara ezinbesteko. Pertsona bakoitzak du balioa; hiztun bakoitzak, garrantzia.

Euskaltegian izena eman dugunok, euskara lehen hizkuntza dugunok, kanpotik etorri garenok,

euskaraz, Euskal Herrian, ikasi eta bizi nahi dugunok...

Guztiok herri bat gara. Euskara gara.

Aditu Korrikaren deiadarra.

Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra.

Piztu da Korrikaren garra!...



korrika.eus



Zer da KORRIKA?

Korrika da Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia; helburu ditu euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEKren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea.

1980an Euskal Herria, Oñatitik Bilbora, zeharkatu zuen 1. KORRIKA antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudanik, 23 Korrika eta 45 urte igaro dira.



2026ko martxoaren 19an hasita, 11 egun eta 10 gauez, Korrikak Euskal Herria gurutzatuko du 24. aldiz. Bi mila eta bostehun kilometro euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe.

Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa eskuz esku eta kilometroz kilometro eramaten dute korrikalariak; haren barruan Korrika helmugara iristean irakurriko den mezua gordetzen da, ordura arte sekretupean egona.

Korrika gertakari garrantzitsu bilakatu da, bi urterik behin Euskal Herriko jendartea astintzen duena, zinez ekimen babestua eta maitatua. Bertan gero eta jende-kopuru handiagoak hartzen du parte, edizioz edizio; Korrikaren antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herriko eta auzoz auzoko batzordeetan; eta, kanpainak irauten duen bitartean, hil batzuk lehenago aurkezten denetik azken eguneko jaia egin arte, ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi ditu. Gainera, euskal kultura bultzatzeaz gain, Korrika arduratsuagoa sustatzen dihardugu: feminismotik eta gizarte-erantzukizunetik eraikia, aniztasuna aldarrikatzen du, aztarna ekologikoari erreparatzen dio, eta abar; horixe baita, AEKren eta Korrikaren ustez, maitasun eta babes horiek guztiak jendarteari itzultzeko biderik onena.

Nola hartu parte?

Antolaketan arituz

- Zure herrian edo auzoan eratuko den Korrika Batzordean parte hartuz.

Diruz laguntzeko bideak

- Korrika Laguntzailea izan eta/edo 24. KORRIKArek materiala erosi.
- Korrikalarien peto edo bizkarrekoa erosi, aurretiaz, AEKren edozein euskaltegitan, online dendan zein Korrika dendetan.
- Korrikaren izenean, beheko kontu korranteetan nahi den ekarpena egin:
 - Hegoaldean: ES70 3035 0072 02 0720037810
 - Ipar Euskal Herrian, eurotan (FR76 1333 5000 4008 9291 5827 532) edo euskotan (218371601)
- BIZUM edo txartel bidez ekarpena egin, “korrika” edo “aek” bilatuta; baita webguneko “Nola parte hartu” atalean ere.
- Lekukoa eraman familiarekin, elkartekideekin, lagunekin... dagokion ekarpena eginda.

Korrikaren berri emanez eta haren ospea hedatuz

- Korrikaren webgunea bisitatuz (www.korrika.eus) eta Korrikaren aldeko sare sozialetan parte hartuz.
- Korrika Kulturalaren baitako ekitaldietan parte hartuz.

KORRIKAn bertan parte hartuz

- 24. KORRIKArek hasieran eta amaieran parte hartuz: zatoz Atharratzera martxoaren 19an eta Bilbora hilaren 29an!
- Bizkarrekoa jantzita korrika eginez; euskara ikasi, hitz egin eta euskaraz bizi nahi dugula erakusteko.

Enpresa eta saltegiek

- 24. KORRIKA iragartzeko euskarriak babestuz.
- Korrikalaria eskuratuz zein Korrika Lagun izanez.
- Kilometroak eskuratuz. Parte hartzeko modu hau erabili nahi dutenek Korrikaren bulegoetara jo dezakete.

Nork antolatzen du KORRIKA?

AEKk antolatzen du. AEKren xedea Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso biziitzea da. Horretarako, euskararen normalizazioan dihardu, euskararen normalizaziorako eremu guztietan, gainera: ezagutzan, erabileran eta sustapenean.

Honako hauek dira, aipatu xedea lortzeko begira, AEKren helbururik behinenak: **ezagutzaren unibertsalizazioa; euskara eroso erabiltzeko eremuak sortzea, garatzea eta elkarlotzea; hizkuntza-politikaren norabidetzea; eta sektorea (helduen euskalduntzea) berrantolatzea**, besteak beste. Hori horrela, AEKrentzat ezinbestekoak dira euskalduntzea doakoa izatea, euskararen ofizialtasuna eta euskaltegientzako finantziario iraunkorra.

Helduen euskalduntzea lehen lerroa ekarri nahi dugu, baina, AEKren helburuetatik harago, euskara eta hiztun-komunitatea larrialdi linguistikoan gaudenez, urrats bat aurrera egin eta larrialditik indarra dirako bideari ekin beharra dago, Pizkunde berri bat abiatu. Horretarako, lehen eginkizuna da euskararen normalizazioa eta biziberritzea agenda politiko eta sozialaren ardatzean jartzea.

Horiexek dira AEKren aldarriak 24. KORRIKArek ingurumarian; eta gure nahia, Korrikaren mezua lau haizeetara hedatuta, horiek lortzen laguntzea. EUSKARA GARA.

aek korrika

aizu!

ahize aek
hizkuntza aholkularitza

praktikatu
mintzapraktika
egitasmoak

euskaratu
itzulpen gintza
zuzenketa zerbitzua

